



SAN ANTON ZOZKETA ZOZKETAREN OINARRIAK

2026

Sarrera

Ohiko San Anton Zozketa 1781ean hasi zen ospatzen. Jatorrian, dirua San Prudentzioko adinekoen egoitzara bideratzen zen, 1778ko abuztuaren 3an Karlos III.aren Erret Zedulak Gasteizko umezurtz-etxe gisa sortutako egoitzara. 1984az geroztik, Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzua arduratzen da hura antolatzeaz.

Zozketa urtarrilaren 17an egin ohi da, San Anton egunean, arratsaldeko 18:00etan, Gasteizko Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan (Plaza Berria, 1), Gasteizko alkatea buru dela eta, honekin batera, udalbatzako kideak eta tokiko agintariak bertan daudela.

Zozketaren mekanika eta baldintzak

Zozketaren **helburua** da ausaz hautatutako zenbakietako bakoitzari txartelaren iruntzian zehaztutako sarietako bat ematea. Zozketa Euskal Herriko Notario Elkargoak izendatutako notario baten aurrean egiten da eta honek ematen du fedea eta zozketaren akta idazteaz arduratzen da.

Gaur egun, 30.000 **txartel** jaulkitzen dira, 0tik 29.999ra bitarteko zenbakiak dituztenak, 100 unitateko 300 taloitegitan banatuta; txartel bakoitzak 0,60 euroko prezioa du. Txartel guztien balio osoa 18.000 eurokoa da. Txartelean zozketaren eguna, lekua, prezioa, salmenta-puntu ofizialen zerrenda eta zozketatutako sarien zerrenda (10 guztira) adierazi behar dira.

Txartelak saltzeko **aurreikusitako data** 2025eko abenduaren 15ean hasi eta 2026ko urtarrilaren 17an amaituko da. Txartelak Vitoria-Gasteizko udalerrian soilik salduko dira. Hauek dira salmenta guneak:

- Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizarte-etxeak (Kiroldegiak EZ)
- San Prudentzio adinekoen egoitza
- Behin-behineko stand-a Loma Jeneralaren Plazan, San Antongo txartelak saltzeko soilik bideratua.

- Vitoria-Gasteizko Laboral Kutxaren sukurtsalak.
- Abastos Azoka.
- Florida Merkatua
- Ciclos Sport, txirrinda denda
- La Peña Dulce gozotegia
- Gasteizko Eguberrietako azoka eta Almendrako azoka.
- San Anton zozketarako txartelak ezin dira saldu aipatutako lekuetatik kanpo.

Zozketatuko diren 10 sarien zerrenda honako hau da:

Zk	Saria
1	Txerriki iberikoz eta tokiko produktuez osatutako sorta
2	1500 euroko bidaia egiteko opari txartela
3	15 hazbeteko ordenagailu eramangarria
4	Argazki-saio profesionala eta 10 argazkiko bilduma
5	"Zatoz, deskonektatu eta sentitu Arabar Errioxa" esperientzia
6	"Cube Touring ONE " txirrinda
7	Bidaiatzeko maleta eta motxila banaz osatutako sorta
8	"Azkena Rock Festival" esperientzia 2 lagunentzat
9	Liburuak erosteko bonoa
10	Laboral Kutxaren urtebeteko Etxebizitza aseguru

1. taula: San Anton zozketako sariak

Sari guztien balioa osotara sei mila berrehun eta laurogeita sei euro eta hogeita hamahiru zentimokoa da **(6.286,33 €)**.

Zozketa amaitu ondoren, notarioak akta idatziko du eta hau izango da saritutako zenbakiak egiaztatzeko eta ondorioz sariak esleitzeko balioko duen agiri bakarra. Udalak zozketaren emaitza argitaratu eta iragarriko du ohi dituen bideak erabiliz.

Sariak erreklamatzeko saritutako zenbakiren bat duten pertsonak Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzura jo beharko dute agiri horrekin, Goiuri Jauregira (Aihotz plaza, z.g.), hiru hilabeteko epean, zozketa egin eta hurrengo egunetik hasita.

Zozketako txartelak eramailearentzako dokumentuak dira, eta, beraz, saria aurkezten duen pertsona fisikoari esleituko zaio; ez da saririk emango jatorrizko txartela aurkeztu ezean. Agiri hori ezin izango da inola ere ordeztu. Hautsitako edo hondatutako txartelak eta horien baliozkotasunari buruzko zalantzak dituztenak aztertu egingo dira, eta ez dira ordainduko zerbitzuburuak berariaz agindu gabe. Ukatuz gero, eramaileak errekurtsioa aurkeztu ahal izango du Kultura eta Hezkuntza Sailean, jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean. Udalak aurkeztutako txartelaren baliozkotasuna egiaztatzeko bitartekoak aktibatuko ditu (matrizeak, saltokiak).

Soberan geratzen diren txartelak saldu ez direlako edo/eta baliogabetzat jotzen direnak zozketaren aktan jasoko dira, baldin eta halakorik izanez gero.

Zozketaren prozedura eta garapena

Alkateak edo honek eskuordetzen duen zinegotziak emango dio hasiera zozketari, notarioak zozketa egiteko elementu guztiak ondo daudela egiaztatu ondoren. Zozketan erabilitako materiala jatorriz zozketarako egin zena da. Urtean zehar San Prudentzio Egoitzan gordetzen da eta honako elementu hauek ditu:

- Egurrezko bost kutxa, zenbakiak gordetzeko.
- 10 bolako lau sorta, 0tik 9ra zenbakituak.
- 0tik 2ra zenbakitutako boladun jokoa (milako hamarrekoak).
- Zorro granatea, 1etik 10era zenbakitutako hamar bolarekin (banatzen diren sarien kopuru osoari dagokiona).
- Idulki bat zenbakiak ordenatu eta erakusgai uzteko.

Zozketaren prozesuan, horretarako egindako zurezko bost kaxetatik bola bana ateratzen da zenbaki sariduna osatu arte. Prozesua lehenengo kaxarekin hasten da, milako hamarrenei dagokiena eta hiru bola baino ez

ditu kutxa honek, 0, 1 eta 2. Ondoren, gainerako lauekin jarraitzen du, milako unitateei, ehunekoei, hamarrekoei eta unitateei dagozkienak, bakoitza hamar bolarekin (0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9). Ateratako bola bakoitza idulki batean jartzen da eta han zenbaki saritua ikusten da.

Zenbaki sariduna osatu ondoren, zorro granate batetik beste bola bat ateratzen da, eta horrek erabakiko du zein sari dagokion. Zaku honek 1etik 10era zenbakitutako hamar bola ditu, aurreikusitako sariak adina.

Zenbaki sariduna zehazten duten bolak jatorrizko kutxetara itzultzen dira, baina ez da gauza bera gertatzen saria zehazten duen bolarekin, hau ez baita zakura itzultzen. Prozesu hau sari adina aldiz errepikatzen da; edizio honetan 10 sari ezarri dira.

Zenbakidun bolak San Prudentzio Egoitzako egoiliar bik ateratzen dituzte. Txandaka, zenbakiak ozenki irakurtzen dituzte, notarioari erakusten dizkiote eta dagokion ordenan jartzen dituzte idulkian.

Sari banaketa amaituta, alkateak amaitutzat ematen du urteko San Anton zozketa.

Gasteizen, 2025eko azaroaren 23a.



SEGURTASUN SAILA
Babes Zibileko Sailburuordetza
Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Protección Civil
Dirección de Juego y Espectáculos

PROZEDURA ELEKTRONIKOA / PROCEDIMIENTO ELECTRÓNICO
RF-01-2025-10

ERRIFA BAIMENTZEA
AUTORIZACION DE RIFA

ORGANO BAIMEN-EMAILEA /
ÓRGANO AUTORIZANTE

JOKO ETA IKUSKIZUNEN ZUZENDARIA
DIRECTOR DE JUEGO Y ESPECTACULOS

ARAUDIA / NORMATIVA

- EAEko Jokoaren Erregelamendu Orokorraren 250. artikulua eta ondorengoak (120/2016 Dekretua, 19/2022 Dekretuaren bidez aldatua).
- 318/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena

- Artículo 250 y siguientes del Reglamento General del Juego de la CAE (Decreto 120/2016, modificado por el Decreto 19/2022).
- Decreto 318/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad.

Antolatzailea / Organizador	VITORIA-GASTEIZKO UDALA AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ
NAN/IFK / DNI/CIF	P0106800F

ERRIFAREN DATUAK / DATOS DE LA RIFA

BOLETOEN ZENBATEKOA / N° DE BOLETOS	30.000	SALNEURRIA / IMPORTE	0,60 EURO
SALMENTAREN DATAK / FECHAS DE LA VENTA		HASIERA/INICIO 15/12/2025	AMAIERA / FIN 17/01/2026
SARIEN BALIOA GUZTIRA VALOR GLOBAL DE LOS PREMIOS		6.286,33 EUROS	
SARIEN ZERRENDA / RELACIÓN DE PREMIOS			
1.- Txerri iberikoz eta tokiko produktuez osatutako sorta / Selección de productos de cerdo ibérico y productos locales, 600 € 2.- 1.500 euroko bidaia egiteko opari txartela / Tarjeta regalo para un viaje valorado en 1.500 € 3.- 15 hazbeteko ordenagailu eramangarria / Ordenador portátil de 15 pulgadas, 599 € 4.- Argazki-saio profesionala eta 10 argazkiko bilduma / Sesión fotográfica y entrega de álbum de 10 fotos, 384 € 5.- "Zatoz, deskonektatu eta sentitu Arabar Errioxa" esperientzia / Experiencia: "Escápate, desconecta y siente Rioja Alavesa), 400 € 6.- "Cube Touring ONE" txirringa / Bicicleta "Cube Touring ONE", 669 € 7.- Bidaiatzeko maleta eta motxila banaz osatutako sorta / Juego de equipaje compuesto por una maleta y mochila de viaje, 315 € 8.- "Azkena Rock Festival" esperientzia 2 lagunentzat / Experiencia "Azkena Rock Festival" para 2 personas, 1.200 € 9.- Liburuak erosteko bonoa / Bono regalo para la compra de libros, 200 € 10.- Laboral Kutxaren urtebeteko Etxebizitza aseguruua / Seguro Hogar por un año de Laboral Kutxa, 419,33 €			
ZOKKETAREN DATUAK: MODUA, LEKUA, DATA/ DATOS RELATIVOS AL SORTEO: MODO, LUGAR, FECHA.			

Donostia - San Sebastian, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 88 79 - Fax 945 01 87 48

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página.
Documento hau jatorrizko dokumentu elektronikokoaren irudikapen bat da, egoitza elektronikoan egiaztatzen da, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T7K96-AJXQ

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: NEREA ALDAY GARATE | 2025/12/02 08:33:28



Zozketa notario aurrean egingo da 2026ko urtarrilaren 17an arratsaldeko 18etan, San Anton jaiegunean, Vitoria-Gasteizko Udaleko instalazioetan, Udalbatza eta gainontzeko Agintaritza Probintzialak bertaratuta

Txartelak leku hauetan salduko dira: Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizarte Etxeak (kiroldegiak ez direnak), San Prudentzio Egoitza, aldi baterako standa Loma Jeneralaren plazan urtarrilaren 3tik aurrera, Gasteizko Euskadiko Kutxaren sukurtsalak, Florida Merkatua, La Peña Dulce gozotegia, Ciclos Sport, eta Gabonetako merkatu tradizionala eta Almendrako merkatua (baieztatzeke).

El sorteo se celebrará ante Notario, a las 18 horas del día 17 de enero de 2026, fiesta de San Antón, en instalaciones municipales del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, con la presencia de la Corporación Municipal, acompañada de las restantes Autoridades Provinciales.

Los boletos se venderán en los siguientes lugares: Centros Cívicos del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (no polideportivos), Residencia San Prudencio, stand temporal en Plaza General Loma a partir del 3 de enero, sucursales de la Caja Laboral del municipio de Vitoria-Gasteiz, Mercado Florida Merkatua, Pastelería La Peña Dulce, Ciclos Sport, y Mercado tradicional de Navidad y Mercado de la Almendra (por confirmar).

Lekua / Lugar: Vitoria-Gasteiz	Data / Fecha: Sinadura elektronikoen egunean / A la fecha de la firma electrónica
Elektronikoki izenpetua / Firmado electrónicamente	NEREA ALDAY GARATE

ERREKURTSOA / RECURSO

Gora jotzeko errekurtsua Babes Zibileko Sailburuordeari. Hilabeteko epean

Recurso de alzada ante la Viceconsejera de Protección Civil. En el plazo de un mes

ANGEL FERNANDEZ-REYES LUIS
C/ MANUEL IRADIER 7 - 4º
TELEF.- 945140366 FAX 945135631
DELEGADO EN VITORIA DEL COLEGIO NOTARIAL DEL PAÍS VASCO

DESIGNACIÓN NOTARIAL N°: 14/2025

DOÑA MAIDER ETXEBARRIA GARCIA
ALCALDESA DE VITORIA-GASTEIZ


En Vitoria-Gasteiz, 18 de noviembre de 2025,

Con relación a su solicitud de asignación de Notario de Vitoria-Gasteiz, con objeto de LA TRADICIONAL RIFA DE SAN ANTON, le comunico por la presente que le corresponde el otorgamiento de dicha escritura, a:

DOÑA ENARA BASABE BELAUSTEGUI
C/ EDUARDO DATO N° 4 1º
01005 VITORIA-GASTEIZ
TFNO 945236957

Copia de la presente comunicación remito al Notario designado, en unión de su solicitud con objeto de que se pongan en contacto para el otorgamiento de la escritura solicitada.

Tomo nota en el libro correspondiente.



FIRMADO: ANGEL FERNANDEZ-REYES LUIS

Egiaztezeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	VITORIA-GASTEIZKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ (Registro)		
EKS (Egiaztezeko Kode Seguruak) CSV (Código Seguro de Verificación)	DE666RFC2MX2SQJRHPD57XZ5IE	Data eta Ordua Fecha y Hora	21/11/2025 09:17:17
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	1/1



DE666RFC2MX2SQJRHPD57XZ5IE